

Noaia !!



Eskubaloi taldea, igoera fasean



OLARRIONDO ETA UGARTONDOKO BOE
VPO DE OLARRIONDO Y UGARTONDO

KOITUTU, EBELARISEK HAMA BESTE BAIKO LEHEN, TRAKURRI DSORIK, ATERKOOH ANTES DE RELLENAR ESTE IMPRESO, LEA ATEHMENTE BU OCVFENIDO

ESKATZAILEREN DATUAK

Eskatzailearen datu pertsonalak / Datos personales del o la solicitante

Lehenengo deitura / Primer apellido		Bigarren deitura / Segundo apellido	
izena / Nombre	Sexua / Sexo: G / H E / M	jaio-eguna / Fecha de nacimiento	Egoera zibila / Estado civil
Identifikadorea / Identificador	NAN / DNI Pasaportea / Pasaporte Egoitza -txartela / Tarjeta de residencia	Zenbakia / Número:	
Egingo Helbidea (auzoa/kalea/ezkaratza/eskua/zenbakia, etab.) / Dirección		Telefonoa / Teléfono	
Posta-kodea / Código Postal	Udalerria / Municipio	E-maila / Correo electrónico	
15 urtez etanekin errotatuta egon zarela egiaztatu dezakezu? / Puede acreditar 15 años de empadronamiento en periodos discontinuos?		Bai / SI Ez / NO	
1. Telefonoa / Teléfono 1		2. Telefonoa / Teléfono 2	



Olarriondo eta Ugartondoko promozioak

Eskaera-orriak aurkezteko garaia da

PAGOA

Orhi



1,80€

Euskal

garagardo jatoma

ERRAUSKETARIK EZ
LURRA BASERRIA HERRIA
BIZIRIK

Elkartasuna
Kalea 100, 48900 Leizor
945 11 11 11
www.elkartasuna.com
945 11 11 11

USURBILGO HAUR ESKOLA

0-3 URTE BITARTEKO
HAUR HEZKUNTZAKO
05/06/07. urteetan jalo
eta jaloko diren haurrak

- **NON:** Kalezaramen
- **ORDUTEGIA:** 7:30 - 19:00
- **EGUTEGIA:** astolohonetik ostiralara
Iraila - Uztaila
- **INFORMAZIOA ETA IZENEMATEA:**
martxotik apirilaren 27ra
8.30etik 12.45era
- **ZOZKETA EGUNA**
maiatzeren 7an eguerdiko 13.00ean
udaldebeko areto nagusian izango da

KOKORATU,
APRILAREN 30EAN
HAUR ESKOLAKO
MATRIKULAZIO
GARRA
AMATZEN DELA



OSASUN
EZKETA



PASAI
ETA OSKETA



JANTORIA



ZERBITZU
PEDAGOGIKOA
GURASO
ESKOLA



ESMEN
BEREZIAK



Badok Amairu !!

Nerea Bordagarai: "Ezin bizi, lagunik eta parrandarik gabe"

Izen abizenak: Nerea Bordagarai
Iparragirre.

Adina: 19 urte.

Helbidea: Atxegalde.

Lanbidea: Fisika ikaslea.

1. JAKIRIK GOGOKOENA.

Aitaren patata tortilla.

2. OHITURA TXARREN BAT.

Parranda gehiegi.

3. ZER GORDETZEN DUZU

SAKELAN?

Dena poltsan.

4. ZERTAN BERPIZTUKO ZINATEKE?

Tximeleta.

5. ZERI DIOZU BELDURRA?

Leku oso itxiak ez ditut gustuko.

6. MIRESTEN DUZUN PERTSONA.

Ahizpa eta gurasoak.

7. EZIN ZAITEZKE BIZI...

Lagunik eta parrandarik gabe.

8. EGINDAKO EROKERIA

HANDIENA.

Oraindik erokeria gutxi egin dut.

9. LIBURU BAT.

"Ipuin batean bezala".

10. FILM BAT.

"El diario de Noa".



11. LEKU BAT.

Hondartza, kostaldea.

12. HERRIKO LEKURIK EDERRENA.

San Estebango parkea.

13. URTARO BAT.

Udaberria.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte Bordaerri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publizitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Agurtzane Solaberrieta, Joxe Luis Arrastoa, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Elektrikaria: Iñaki Salsamendi.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

IKA MIKA ATALEAN PARTE HARTU NAHI BADUZU, GOGOAN IZAN IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITUELA. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. IDATZIA ARGITARATZE-DATA BAINA ASTEBETE LEHENAGO EKARRI BEHAR DA.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean eta, orohar, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aurkibidea

IRAKURRI ETA OPARITU KANPAINA _____ **5. OR.**

BABES OFIZIALEKO ETXEEN ZOZKETAK _____ **6. OR.**

HONDAKINAK NOLA GUTXITU _____ **8. OR.**

ORDUBETEKO LANUZTEA DEITU DA _____ **9. OR.**

INDEPENDENTZIAREN SUSTRAIAK _____ **10. OR.**

HERNIALDE-USURBIL MENDI MARTXA _____ **11. OR.**

TXUMA MURUGARRENEK KONTZERTUA _____ **12. OR.**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



JOSE PIÑAS

Beasain-Mexiko metroa

B easain. Goizeko lau t'erdietan jaiki da, berrogei bat urteko gizona da, sukaldean kafea gosaldtu du, ogitartekoa poltsan sartu eta berriro logelara bueltatu da. Han emaztea musu batekin agurtu du, seme alabak bezala. Goizeko bos-tak eta laurdenetan etxetik atera da, kaleak ilunak oraindik, lantokirantz. Beasaingo CAF lantegian egiten du lan.

Mexikoko metroa. Goizeko zortziak dira. Hirurogei bat urteko gizon bat bagoira sartu da. Akordeoia jotzen hasten da diru eske. Begi zuriak ditu, itsua da eta. Nola agurtuko zituen emaztea eta seme alabak etxetik atera baina lehenago?

Hurrengo metroko geltokian sei eta zortzi urteko neska sartu dira. Ezer esan gabe eserita gaudenei magalean papertxo bat uzten digute: Pueblako indigena den herri batetik datoz. Oin hutsik. Sabel hutsik. Nola agurtuko zituzten bere gurasoak metrora diru eskatzera etorri baina lehenago? Zer pentsatuko zuten metroko bidean umeak gurasoekin eskolara zihoztela ikusi dituztenean?

Hurrengo metroko geltokian mutil gazte bat sartu da gitarra batekin. Argala. Musika eskaintzen eta diru eske. Metrora etorri baina lehenago bezperako gau euritsua non igarotzeko

etxerik edukiko al zuen?

Hurrengo metroko geltokia dator eta berarekin beste istorio bat. Ehun eta hamar zentimetroko emakume bat sartu da, hankarik gabekoa. Makulurik gabe eskuekin lagunduta bagoian zehar mugitzen da diru eske. Belauneko muinoiak babesteko, kartoi eta plastikozko zorroekin bilduta daramatza. Zenbat denbora emango zuen kotxe ketsuen artean eta kale jendetsuetan metrora iritsi baina lehenago?

Eta hurrengo metroko geltokia eta bagoia, eta hurrengoa eta hurrengoa...

Eta bagoi honetan neska gazte bat igo da. Tlatelolcoko sarraskiaren historiaren CD bat eskaintzen du salgai. 1968an gobernuak ejertzittoa kalera atera zuen eta bizitza duin bat aldarrikatzeko manifestazio batean parte hartzen ari ziren 112 gazte erail zituen.

Hiltzeko era ezberdinak daude. Erailtzeko era ezberdinak daude.

Beasain. Arratsaldeko ordu biak dira. Goizeko lan txandaren amaiera. Mexikoko metroaren bagoiak CAF lantegian egiten dira, mexikar askorentzat lantokia bihurtu direnak.

Ainhoa Azpiroz - Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregarai - Jose Piñas - Unai Agirre

Ika-mika !

Usurbilgo Aralar eta udal hauteskundeak

Azken hauteskundeetatik hona gaizkiak, zoritxarrez, onera egin beharrean, berean edo okerrera egin badute ere, aurrera egin eta Herriari zor diogun Hitza emate aldera urrats praktikoak eman behar direla deritzogu. Hori dela eta, aurrekoan ez bezala, oraingoan Usurbilgo Aralarrek herriko udal hauteskundeetan parte hartzeko erabakia hartu du bere zerrenda aurkeztuz.

Ez dugu inoren kontra eta inoren lepora jardun nahi, alderantziz baizik, guztion parte hartzearekin herria behetik gora eraiki nahi dugu. Herritarrei hitza emateaz gain, parte hartzeko plataformak eta erabakietan parte hartzeko guneak eraiki behar direla deritzogu. Herriak du hitza, eta herrigintza eraiki-

tzailea, hau da, herrigintza positibo eta praktikoa, da herria eraikitzeko bidea. Jakina, ez dago dena gure esku, eta jakin badakigu, egungo egiturek ez dutela lana errazten, baina gure esku dagoena egiteko asmoz aurkeztzen gara.

Hona gure lehentasunak: Giza eta herri eskubideak; Elkarkidetzak; Elkarriketaren kultura; Herri nortasuna; Kultura desberdinen arteko kohesio soziala eta kanpotarren integrazioa; Auzoak: Aginaga, Elizalde, Kalezar, Urdaiaga eta Zubieta; Herritar ororen parte hartzea; Herrigintza eta herri ekimena; Kolektibo desfaboratuen beharrrak; Ekologia; Euskal Herriko gainerako lurraldeak eta herriak; Gainerako herriekiko solidaritatea...

Usurbilgo Aralarren lehentasunak hauek izanda, ezin egungo egoerari bizkar eman. Izan ere, Usurbilen azken urteetan boto gehien jaso duen Ezker Abertzalearen sektore nagusiak zailtasun larriak baititu bere zerrenda aurkezteko. Egoera horren aurrean bada egin dezakegun zerbait, aurkeztu ahal izateko gure sinadura ematea, hain zuzen ere. Jakin badakigu azken erabakia ez dagoela, oraingoan bederen, ez gure ez herritarren esku, baina bai lehen zailtasuna gainditzeko ezinbesteko sinadura-kopurua lortzen laguntzea. Hori dela eta, zure sinadurarekin babestera animatzen zaitugu.

Usurbilgo Aralar

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU.

NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: apirilak 27. Idatzia ekartzeko azken eguna: apirilak 23.

Datorren astean hasiko da “Irakurri eta oparitu” kanpaina udal liburutegian

Gustuko duzun liburu bat oparitzea, bai opari ederra, ezta? Ba horixe da “Irakurri eta oparitu” kanpainaren bereizgarri nagusia. Topagunea (Euskara Elkarteen Federazioa) eta NOAUA! Kultur Elkartearen artean jarri dugu ekimen hau martxan. Usurbilgo udalaren babesa jaso dugu eta Lizardi eta Laurok denden laguntza estimagarria. Irakurketa sustatzeko kanpaina hau apirilaren 23an hasiko da.

Egitasmo honen helburua irakurketa sustatzea da. Honen bidez gainera, Topagunea federazioaren kide garen elkarteok euskararen erabilera gozagarria bultzatu nahi dugu.

Udal liburutegian

100 liburu jarriko dira

Bi hilabetez, apirilaren 23tik ekainaren 22ra, Usurbilgo udal liburutegiko apal berezitu batean 100 liburu jarriko dira, adin tarteka sailkatuta.

Apalategi honen ondoan liburutegiko ordenagailu bat egongo da. Ordenagailu honen bidez, egitasmorako propio sorturiko webgunean sartu eta hainbat kontsulta egin ahal izango dira: liburuaren gaineko iruzkinak, beste

irakurleen iritziak, idazleen biografia eta bibliografia,...

Liburuak merkeago erosteko aukera

Zein da kanpaina honek eskaintzen digun abantaila? Adibide batekin azalduko dugu. Demagun pertsona batek maileguan (gehienez 15 egun) harturiko liburu bat irakurri eta gustuko duela. Liburu hori erosi eta beste pertsona bati oparitu nahi badio, “Irakurri eta oparitu” egitasmoaren abantailaz baliatu ahal izango da:

- **Liburutegian hartutako liburuari dagokion fitxa beteko** du. Fitxa betetzera, deskontu txartela emango diote irakurleari. Laurok edo Lizardi liburutegian erabili ahal izango da deskontu txartel hori.

- **Txartel horrekin %25 merkeago** lortuko du irakurritako liburua Laurok edo Lizardi dendetan erosiz gero.

- **NOAUA!ko bazkideen kasuan, beherapena %50ekoa izango da.** Horretarako bazkide txartela erakutsi beharko diote Laurok edo Lizardiko liburu saltzaileari, edo izena eman, honek izango duen bazkide zerrendan begiratu dezan.

- Baldintza horiek betez gero, merkea-



KANPAINA HONI ESKER,
LIBURUAK MERKEAGO EROSTEO
AUKERA IZANGO DUGU.

go lortuko du liburua, baina ez du berak eramango liburua. Oparia jasoko duen lagunaren helbidea utziko du liburu dendan eta, nahi izanez gero, postala edo oharra idatziko dio.

- NOAUA! Kultur Elkartearen kideen esku geratzen da oparia hartzaileari, emandako helbidera, eramatea.

Informazio gehiago, webgune honetan: www.topagunea.org/irakurri

Ika-mika !

Hego Euskal Herriko beste milaka Heuskaldunek bezala, ehunka usurbildarrok egin dugun bezala, Usurbilgo udaletxera inguratu eta nire sinadura eman dut.

Eta zergatik galderari erantzun nahi diot esanez: nire sinadura (eta ziur naiz besteena ere bai) orain urtebete ireki zen prozesua bultzatzeko da. Sinadura horrek, herri honi zor zaizkion eskubideak bultzatu nahi ditu. Datozkigun hauteskundearen aurrean, Euskal Herriko biztanle izanik hautatzen dudana hautagaitzak eskubide guztiak izan ditzan sinatu

Nik sinatu dut

dut eta benetako demokrazia eta pakearen alde ere sinatu dut.

Aldi berean, komunikabide guztietan egunero azaltzen zaizkigun politiko profesional Alderdi Legearen babesle diren horiek salatzen ditut, eta baita Alderdi Lege antidemokratiko horren aurka dardela hitzez esan, baina hautagaitzei zegozkien 372 hautagai bere egin dituzten (PNV-EA-PSOE-PP-UPN-IU-CDN-Aralar) alderdiak ere. Horren adibide bat dugu Usurbilgo Udala, non azkeneko hauteskundeetan UHLren 6 zinegotziak, 2 PNV - 2 EA - 1 PSOE - 1

PP alderdiek bereganatu zituzten lau urte betetzera doaz beraienak ez diren eserlekuak okupatuz. Ze zilegitasun dute demokraziaz edo pakeaz hitz egiteko?

Hilabete eskasera ditugu hauteskundeak eta kezkatu nago orain lau urte bezala ez ote garen aurkituko, baina Euskal Herriko biztanle naizenez, nik aukeratzen dudana hautagaitzak duen eskubide guztiz demokratikoari eutsiko diot eta oztopoak oztopo maitzaren 27an berari emango diot nire botoa.

Eskaera-orriak aurkezteko garaia da

Olarriondon eta Ugartondon babes ofizialeko 168 etxebizitza eraikiko dira

Olarriondo eta Ugartondoko babes ofizialeko etxebizitzaren zozketak gero eta gertuago daude. Eskaera-orriak aurkezteko epea asteartean zabaldu zen. Maiatzaren 4an amaituko da eskaera-orri horiek udal-tertxean aurkezteko garaia. Hauek dira bete beharreko baldintza nagusiak: 8 urtez Usurbilen erroldaturik egotea edota 15 urtez epe ezberdinetan erroldaturik egon izana, jabetzan etxebizitza-rik ez izatea eta urtean 9.000 eta 33.100 euro bitarteko diru-sarrerak izatea.

Nora jo behar da? Udaletxera. Dena den, lanak erraztu asmoz, udalak eskaera-orriak postaz bidali dizkie iazko udan egin zen inkestan etxebizitza beharra adierazi zuten usurbildar guztiei. Era berean, etxek etxe banatu da dokumentazioa, informazioa herritar guztiengana iritsi dadin.

LUISMARI ORMAETXEA

“Onartuen zerrenda maiatzaren amaieran argitaratzea aurreikusi da”

Eskaerak jaso ondoren, horien azterketari ekingo zaio, onarpen baldintzak betetzen ote diren egiaztatu ahal izateko: 8 urtez Usurbilen erroldaturik egotea edota 15 urtez epe ezberdinetan erroldaturik egon izana, jabetzan etxebizitzarik ez izatea eta urtean 9.000 eta 33.100 euro bitarteko diru-sarrerak izatea.

Luisuari Ormaetxea alkateak prentsa-ohar bidez adierazi zuenez, "onartuen zerrenda maiatzaren amaieran publika-

ztea aurreikusi da".

Informazio gehiago eta aurkeztu beharreko eskaera-orriak ere, apirilaren 11ko Aldizkari Ofizialean aurkituko dituzue, sarean, honako helbidean:

<https://ssl4.gipuzkoa.net/boletin/asp/aldizkar.asp>

Maiatzaren 4an amaituko da eskaera-orriak aurkezteko epea

Lehenengo asteartean zabaldu zen eskaera-orriak aurkezteko epea eta maiatzaren 4an amaituko da epe hori.

Aurkeztutako eskaera-orriak aztertu eta beharrezko zuzenketak eta ofiziozko egiaztapenak eginda, onartutakoen eta baztertutakoen behin-behineko zerrenda onartuko da. Hamar lan eguneko epean behin-behineko zerrenda iragarki-taulan erakusgai jarriko da, interesdunek, beharrezko ikusten badute, erreklamazioak aurkez ditzaten. Aurkez daitezkeen erreklamazioak erantzun eta hala badagokio behin-behineko zerrenda zuzendu ondoren, udalak behin betikoz onarpena emango dio zerrendari.

Onartutakoen eta baztertutakoen behin betiko zerrendaren aurka, berraztertutako errekurtsioa jarri ahal izango da hilabeteko epean, zerrenda bera argitaratzen den bihamunetik kontatzen hasita.

Etxebizitza tasatuak

Etxebizitza tasatuak ere eraikiko dira Olarriondon eta Ugartondon, 168 guztira. Etxe hauen prozesua mantsoago doa, ordea. Lehenik ordenantza onartu behar da eta ondoren antzeko prozesua jarraituko dute.

IMANOL UBEDA



OLARRIONDOKO BELAZE HONETAN BABES OFIZIALEKO 120 ETXEBIZITZA ERAIKIKO DIRA.

Eskaera-orria aurkeztu eta gero, zer?

Lehenik eta behin, maiatzaren 4a bitartean udaletxean aurkezten diren eskaera-orri guztiak aztertuko dira, banan bana, eta zozketan parte hartuko dutenen zerrenda osatuko da.

1. Lehen zozketan, etxea lortu dutenen zerrenda osatuko da

Behin zozketan parte hartuko dutenen zerrenda osatu eta gero, lehen zozketa egingo da. Lehen zozketa honetan, etxebizitza lortu dutenen izen-abizenak ezagutuko ditugu (itxarote-zerrenda zein izango den ere zehaztuko da).

2. Bigarren zozketan, zein etxe egokitu zaien zehaztuko da

Lehen zozketan etxebizitza lortu duten horiek, bigarren zozketa batean hartuko dute parte. Bigarren zozketa honetan, etxebizitza lortu dutenei zein etxebizitza egokitu zaien jakinaraziko zaie.

ANTXETA
taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak

EGUZKITZA, 4 USURBIL - 943 370 344

Otar-Goxo
Elikagutak

Zubiaurrena, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

ARRAINDEGIA
PELLO

Puntapax Kalea,7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Eskaerak biltzeko bulego berezia zabaldu da udaletxean

Usurbildarrei ahalik eta informazio gehiena emateko eta eskaerak aurkezteko prozesua errazteko asmoarekin, udalak eskaerak jasotzeko bulego berezia zabaldu du, udaletxean bertan kokaturik.

Luisuari Ormaetxea alkateak prentsa-ohar bidez adierazi duenez, eskatzaileek beren eskaerak aurkezten duten unean, udalak idatziz konfirmatuko die bere dokumentazioaren jasoera eta xehetasun gehiago eskeiniko dizkie aurreikusitako prozesuaz. Zentzu honetan, helbideari buruzko informazioa zuzena izatea erabat garrantzitsua dela azpimarratu du alkateak, berri-emate guztiak eskatzaileengana iritsiko direla bermatu dadin.



Olarriondon babes ofizialeko 120 etxebizitza eraikiko dira. Horietaz gain, tasatutako 120 etxebizitza egingo dira. Sozialak, 23 etxebizitza izango dira. Eta salmenta librean, beste 146 etxebizitza salduko dira. Beraz, guztira, 409 dira Olarriondon eraikiko direnak.

Kupoak, eskatzaileen egoera pertsonalaren arabera

Olarriondon eta Ugartondon eraikiko diren 168 etxebizitzetatik 126 kupo orokorrerako izango dira, eta beste 42 ondorengo kolektiboentzat: 7 etxebizitza, gutxitasun fisikoa duten pertsonentzat; 14 etxebizitza, familia ugarietzat; 14 etxebizitza, hiru edo kide gehiagoz osatzen diren bizikidetasun unitateentzat eta familia ugaria osatzen ez dutenentzat (adibidez, pertsona nagusiak bere kargura dituztenak); beste 7 etxebizitza, adin gutxikoak bere kargura dituzten guraso bakarreko familientzat. Zein kupoetan kokatu automatikoki egingo da, eskatzaileen egoera pertsonalaren arabera eta egoera horiek ziurtatzeko aurkezten diren dokumentuen arabera.



Ugartondon babes ofizialeko 48 etxebizitza eraikiko dira. Horietaz gain, tasatutako 48 etxebizitza egingo dira. Eta salmenta librean, beste 96 etxebizitza. Beraz, guztira, 192 dira Ugartondon eraikiko direnak.

Etxez etxe banatu dira eskaera-orriak

Eskaera-orriak aurkezteko epea apirilaren 17an ireki zen eta maiatzaren 4a arte luzatzea aurreikusia da. Eskaeren aurkezpena errazteko asmoz, udalak eskaera-orriak postaz bidali dizkie iazko udan eginitako inkestan etxebizitza beharra adierazi zuten usurbildar guztiei. Era berean, etxez etxe banatu da dokumentazioa herritar guztiengana iritsi dadin.

Zozketan partehartzeko baldintza nagusiak

Olarriondon eta Ugartondon egingo diren babes ofizialeko etxebizitzetan zozketan partehartzeko baldintza nagusiak hauek dira:

- 8 urtez Usurbilen erroldaturik egotea edota 15 urtez epe ezberdinetan erroldaturik egon izana.
- Jabetzan etxebizitzarik ez izatea.
- Urtean 9.000 eta 33.100 euro bitarteko diru-sarrerak izatea.

Onartuen zerrenda maiatzaren bukaeran argitaratu nahi da

Eskaerak jaso ondoren, horien azterketari ekingo zaio, zehaztutako baldintzak betetzen diren egiaztatzeko. Luisuari Ormaetxea alkatearen hitzetan, "partehartzea ahalik eta handiena izatea eta prozesua arintzea da helburua, eskatzaileen zerrendak udara aurretik prestatu egon daitezen".

Onartuen zerrenda maiatzaren amaieran argitaratzea aurreikusi da.

Hondakinak tratatzeko hainbat esperientzia

Kontsumoaren gizarte-ereduan bizi diren herrialdeetan, hiri hondakin handitzea arazo larrian bihurtu da. “Hondakinekin zer egin?”, hori izan da agintarien kezka nagusia. Konponbide gisa, errauste sistemaren alde egin dute Gipuzkoako instituzioek. “Hondakinak nola murriztu?” galdera argitzeko eztabaida, ordea, bigarren mailan geratu da. Nola murriztu, nola birziklatu, nola berreskuzatu... albo batean geratu diren eztabaidak izan dira. Honen harira, ELA sindikatuak txosten interesgarria argitaratu du, “Errausketaren ondorioak eta ordezko hautabideak” izenekoak. Erraustea albo batera utzita, adibide izan daitezkeen hainbat kasu aipatzen dira.

Alkairoko Zabbaleen komunitatea (Egipto)

Egipto hegoaldean bizi den Zabbaleen komunitateko kideak hiriz lekualdatu ziren, eta hondakinak euren bizibidea izan zitezkeela pentsatu zuten. Betiko paper biltzaileekin batera, atez ateko bilketa-sistemak antolatu zituzten, jatorrian bertan banatutako hondakinak batzeko asmoz. Hondakinak bildu ostean, bereizi egiten dira: birziklagarriak saldu egiten dira, merkatuko prezioan; janari hondarrak animaliei ematen zaizkie, eta gainerakoa zabortegietara eramaten dira.

ALKAIRO (EGIPTO)

“3.000 tona hondakin jasotzen dituzte etxez etxe eta hondakinaren %85 zabortegietan ez amaitzea lortu dute”

Zabbaleen kideek material birziklagarrien salmentaren bidez eskuratzen dituzte diru-sarrera gehienak, familia batzuek zerbitzuaren truke ordaintzen dutenaz gain.

Esperientziaren emaitzak oso onuragarriak dira: 40.000 inguru lagunek



ESKOZIA BERRIKO HERRITARREK BULTZATUTAKO PLAN ALTERNATIBOARI ESKER, ATEZ ATEKO BILKETA EGITEN HASI ETA 90 BIRZIKLAPEN ZENTRO ERATU ZIREN.

dute lana; egunero, 3.000 tona hondakin jasotzen dituzte etxez etxe, eta, banantze-programen bidez, hondakinaren %80-85 zabortegietan ez amaitzea lortzen da.

Gobernuak ez du bultzatu ekimena. Aitzitik, hondakinak biltzeko eta zuzenean zabortegietara eramateko kontratu eskusiboak egin nahi ditu atzerriko enpresa multinazionalekin.

Eskozia Berria (Kanada)

1990eko hamarkadaren erdian, biztanleriaren zati handi batek arbuia zuten zabortegien hedapena, baita gobernuak egunero 500 tona hiri-hondakin solido tratatzeko erraustegi bat ipintzeko egindako proposamena ere. Herritarrek ordezko plan bat taxutu zuten, eta zabortegietara eramaten zen hondakin kantitatea bost urtean erdira murriztea eskatu zioten biztanleria osoari. Honako ekintza hauek garatu ziren, funtsean, ekimenaren alde:

-90 birziklapen-zentro eratu ziren probintzian zehar.

-Edalontzietarako, 10-20 zentaboko arteko fidantza ezarri zen.

-Material birziklagarrien atez ateko bilketa egin zen.

-Hondakin birziklagarriak zabortegietara eramatea debekatu zen.

ESKOZIA BERRIA (KANADA)

“Bost urteko epean, zabortegietara eramaten zen hondakin kantitatea erdira murriztea lortu zuten”

-Biztanleriaren %75ari konpostarako material organikoa biltzeko aukera eman zitzaion.

-Gizartea kontzientziatzeko eta sentikortzeko kanpainak egin ziren.

-Hitzarmenak egin ziren ekoizleekin.

Emaizta erabat arrakastatsua izan zen, eta helburuak data baino bederatzita hila bete lehenago lortu ziren. Bost urtean, 1.000 milioitik gora edalontzi berreskuratu dituzte; erabilitako 3,5 milioi pneumatiko birziklatu dira, eta 1.000 lanpostu berri sortu dira. Herritarren parte hartzea funtsezkoa izan da. Ekoizpen Garbiari dagokionez, beste hainbat jardunbide ere jarri dira martxan.

Iturria: “Errausketaren ondorioak eta ordezko hautabideak”, Errausketaren Aurkako Aliantza Globalak (GAIA) kaleratutako “Hondakinaren errausketa: biltzearen dagoen teknologia” dokumentatik jasotako esperientziak, ELA-Ingurumenak argitaratutako txosten batean jasoa.

Beira birziklatzeko kanpaina abiarazi du San Markosek

San Markoseko Mankomunitateak ostalaritzako 350 establezimendu bisitatuko ditu. Aterik ateko beiraren bilketa indartzeaz gain, ondorengo helburuak ere bete nahi ditu: doako zerbitzu honetara ahalik eta establezimendu gehien biltzea eta bildutako hondakinen kalitatea hobetzea, ahal den neurrian, beirazko ontziak ez diren jasotzea ekidituz.

Informazio-kanpainak apirilaren 16tik 27ra iraungo du. Epe horretan, zonaldeko establezimendu guztietan bisita pertsonalatuak egingo dira, San Markoseko Mankomunitateak eskaintzen duen doako zerbitzuaren berri emateko eta haien parte hartzea eskatzeko.

Zerbitzuan izena ematen duten esta-



SAN MARKOS MANKOMUNITATEAK ERANSKAILU HAUEK BANATU DITU.

blezimenduei eta jada parte hartzen ari direnei eranskailu bereizgarri bana emango zaie establezimendu "beira-birziklatzaile" modura.

Amaitzeko, beirazko ontziak %100 birziklagarriak direla azpimarratu nahi du San Markoseko Mankomunitateak.

Apirilaren 27an ordubeteko lanuztea, LABek deituta

Lan osasunaren nazioarteko Leguna ospatuko da apirilaren 28an. Bezperan, apirilaren 27an ostirala, ordubeteko lanuztea egitera deitu du LAB sindikatuak (deialdia egin duen sindikatu bakarra). Eguerdiko 12:00etatik 13:00era, Usurbilgo udaletxe aurrean elkarretaratzea egingo da.

Datuak esanguratsuak dira. Iaz, Euskal Herrian 129 langile hil ziren lan instripuetan. 529 istripu larri gertatu ziren eta beste 64.897 istripu arin.

LABek prentsa ohar bidez jakinarazi duenez, "apirilaren 27an gure jarduera bertan behera utzi eta kalera aterako gara industrialde eta enpresen aurrean nahikoa dela esateko".

Behar direnak baino sinadura gehiago bildu ditu Ezker Abertzaleak Usurbilen

Gutxienez ehun sinadura behar ziren eta muga hori dagoeneko pasa den asteburuan gainditu zen. Beraz, Ezker Abertzaleak hautes-elkartea sortzeko babesak lortu du. Dena den, sinadura bilketak martxan jarraituko du apirilaren 20a arte.

Pasa den apirilaren 11tik 13ra, hiru egunen buruan dagoeneko 150 herri-tarrek sinatu zuten udaletxean. Gutxieneko muga ehun bat sinadure-

tan zegoenean.

Ondorioz, maiatzaren 27ko udal hauteskundeetan hautes-elkartea sortzeko behar adina babes jaso du Usurbilgo Ezker Abertzaleak.

Ostegunean, hilak 19, herri batzarra

Usurbilgo Ezker Abertzaleak ostegun honetan egingo den herri batzarrean parte hartzeko deia luzatu du. Gaia: hauteskundeak. Arratsaldeko



LARUNBATEAN ELKARRETARATZEA EGIN ZEN FRONTOI ATZEAN.

19:30ean, Bake Epaitegiko atzeko lokalean.

txirriStra
KONTSEJUZARRA 13
943 360 466
pintxoak
ogitartekoak
plater konbinatuak
TABERNA

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186

Euskal Herriaren iragana, oraina eta geroa aztertuko ditu “Independentziaren sustraiak” zikloak

Nafartarrak kultur taldeko-ek “Independentziaren sustraiak” lemapean, ekitaldi sorta prestatu dute apirileko azken asterako. Euskal Herriaren iragana, orainaldia eta balizko etorkizuna ezagutzera proposatzen dute.

N. Programatu dituzuen ekitaldietan, zein da agertu nahi duzuen gaia?

Jexux Agirresarobe. Gure memoria historikoa, historiaurretik hasita. Hitzaldiak Euskal Herrian kokatuta daude. Euskal Herria Europako herri zaharrena da eta bere herrietaz gutxiengoa dakigunak gara. Zikloari “Independentziaren Sustraiak” izena jarri diogu. Gure independentzia nondik datorren eta nola osatu den azalduko da.

N. Hiru hitzaldiak kronologikoki denboran ordenatuta daudela esan daiteke, herri baten eboluzioa islatuz?

J. A. Glaziazioetik hasi eta frankismo garaira arte. Une garrantzitsuenen berri emango dugu. Adibidez, gudak; 1200, 1512ko konkistak, Frantziak eta Castillak lurralde kendu zizkigute-

nekoa. Gehien bat independentziari buruzko gertakariak. Jendeak independenteak izan garela jakin behar luke. Estatu bat izan zela bere ezaugarri guztiekin. Behintzat, jendeak jakin dezala zein den gure historia politikoa.

N. Horretarako, alor honetan adituak diren pertsonak gonbidatu dituzue, ezta?

J. A. Mikel Sorauren historialari ezagunak liburu batzuk idatzi ditu; horietako bat “Historia de Navarra, el Estado de los vascos” izenekoak. Hor dion bezala, Nafarroa euskaldunen estatua izan da. Hain zuzen, Soraurenek azalduko du nola bilakatu den egun ezagutzen dugun Nafarroan. Gabirel Ezkurdiak Euskal Herriaren etorkizuna eta Joseba Asironen historiurrea hartuko dituzte ahotan.

N. Taldearen izaera eta izenarekin bat datorren ekitaldi zikloa dela esan daiteke.

J. A. Nafartarrak-ek bost bat urte daramatza abian. Arlo asko jorratzen dira; haurren antzerkia, musika eta Nafartarrak izenari ematen dion espa-



JEXUX AGIRRESAROBEBE,
NAFARTARRAK- EKO KIDE ETA
ZIKLOKO ANTOLATZAILEETAKO BAT.

rru hori, historia alegia. Bost urte daramagu horretan.

N. Hitzaldietara joango direnek zer ideia barneratzea nahiko zenukete?

J. A. Ez dakizkiten gauza asko eta batez ere, historia politikoa. Pixka bat gurea den historiaren jantzea oso garrantzitsua da.

ARITZ GORRITI _____

Euskal Herriko historiaurrea

Glaziazio ondorengo herri baten ikuskerak. Historiaurreko gaietan aditu Joseba Asironen gaurkotuko ditu Burdin Aroa, zeltak edota monolitoen jatorrizko garaiak. Irudi bidez, gaur egunera ailegatu den lurralde baten iraunkortasuna agerian utziko du. Ahotan hartuko dituen mendeetan zehar, hizkuntzak edota kulturak egindako bidea azpimarratuko du. Bide batez, denbora horretan guztian zehar ondare bihurtzen joan dena erakutsiko du.

Apirilaren 24an, 19:30ean, Sutegin.

Baskonia, Euskal Herria, Nafarroa...

Euskal Herriaren iragan hurbilaren errepasoak dakar Mikel Sorauren historialariak. “Baskonia / Euskal Herria / Nafarroaren kronologia historikoa” izenburupean, aipatutako herriak erakundetze mailan izan duen bilakaera azalduko du. Iruñeko eta Nafarroako Erreinutik Estatu izan zena suntsitu artekoa jasoko da.

Garai bateko Nafarroatik egungo Nafarroara arteko ibilbidea osatuko du.

Apirilaren 25ean, 19:30ean, Sutegin.

Basque country independent 2012

Nazio independentzia bideragarria da 2012. urterako. Historian independentziarako orain baino baldintza hoberik ez da izan. Ezta egun baino behar handiagorik ere. Hala uste du Gabirel Ezkurdiak. Berak deskribatuko duen bost urte barru izango genukeen balizko Euskal Herriak hiriburu politikoa Iruñean eta ekonomikoa Bilbon izango luke. Hori guztia errealitatean bilakatzeko dauden aukerez mintzatuko da.

Apirilaren 26an, 19:30ean, Sutegin.

Usurbilgo pasarte historiko batzuen proiektioarekin amaituko da Nafartarrak taldeak antolatu duen zikloa

Hainbat oroitzapen berritu edota ezezaguna zaiguna ikasteko. Usurbilgo historiak horretarako eta gehiagorako eman du apirilaren 27an. DVD bidez, herriko 200 argazki ikusi eta hainbat gertaera gogoratzeko parada izango da.

1371n Gaztelako Enrike II.ak emandako foruen testuinguru horretan eskratu zuen Usurbilek herri izaera. Sei mende geroago, 1971n, 600. urteurreneko ospakizunak antolatu ziren herrian. Nafartarrak Kultur Taldeak prestatu eta Sutegin apirilaren 27an eskainiko duen DVD emanaldiko bi pasarte dira.

Santa Cruzko apaizaren ihesa edota Bilintx Arratzain inguruan zauritu zuteneko uneak ere gogora ekarriko dituzte. Besteak beste, baserriek izan duten garrantzia azpimarratuko da.

Usurbil, izaera indartsu eta sustrai sakoneko herri gisa definitzen dute.



EUSEBIO TXAPARTEGI ETA JOSE RAMON SARASOLA, DEMA PLAZAN EGIN ZUTEN DESAFIO BATEAN. IRUDI HAU ERE ESKAINIKO DA APIRILAREN 27KO PROIEKZIOAN.

Argazki bidez, garai bateko Usurbil eta usurbildarrak agertuko dira. Argazki zaharrak berriagoekin tartekatuta; guztira, berrehun bat. Herriko gorabeherak

errepatatuko dituen emanaldiari buruz antolatzaileek iragarri dutenez, "herritarren gozagarri izango da". Hilaren 27an, 19:30ean Sutegin.

Igande honetan, Hernialde eta Usurbil arteko ibilaldia

Goiz pasa polita izango dute apirilaren 22an Andatza taldeak antolatu duen ibilaldian izena ematen dutenek. Hernialden hasi eta Usurbilera arteko bidea egin ahal izango da.

Irteerak zazpi edota zortzi bat orduko iraupena izatea aurreikusten dute antolatzaileek. Goizeko 7:00etan jarri dute hitzordua udaletxe parean. Izen ematea egun berean egingo da. Parte hartzaileek Hernialdetik abiatu eta Ernio, Iturriotz, Ernio-Txiki, Aia,

Estena-mendi eta Andatza gainetatik igaroko dira. Tarte horretan, sendagile eta horniketa zerbitzuak jasoko dituzte. Usurbilera ailegatutakoan, bat baino gehiago ez da esku hutsik etxeratuko, opariak zozketatuko baitira.

